

MERKATARITZA-INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2023ko ABENDUA

Euskal AEn, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak %0,2 hazi dira 2023an

Elikaduraren sektorean salmentak %0,5 areagotu dira, eta Gainerako produktuetan %0,3 jaitsi dira


Eustaten datuen arabera, 2023. urte osoan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek %0,2ko hazkunde metatua izan dute. *Elikaduraren* sektorean, salmentek %0,5 egin dute gora, eta *Gainerako produktuek* %0,3 egin dute atzera.

2023ko abenduan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek %0,3ko jaitsiera izan dute, aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan. Aurreko hilaren, 2023ko azaroaren aldean, eta dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, prezio finkoko salmentak %0,5 jaitsi dira abenduan.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak

Indize orokorra Janariak Gainerako produktuak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Hiletik hilera, salmentak %0,4 igo dira *Elikaduran* eta *Gainerako produktuetan* %2,3 jaitsi dira.

Urte arteko datuei dagokienez, 2023ko abendua eta 2022ko abendua alderatuta, prezio finkoetan salmentak %1,9 igo dira *Elikaduran* eta %4,2 jaitsi dira *Gainerako produktuetan*.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Abendua 2023 (P)

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,3	-0,5	0,2
Araba/Álava	1,6	-0,2	-1,4
Bizkaia	-1,1	-0,1	0,4
Gipuzkoa	0,4	-1,4	0,6
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	1,9	0,4	0,5
Gainerako produktuek	-4,2	-2,3	-0,3
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	1,9	-0,6	3,1

(p)Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko Urtarrilaren 29a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AEHK)

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek gora egin dute urtetik urtera, prezio konstanteetan eta egutegiko baldintza homogeenetan: %1,6 Araban eta %0,4 Gipuzkoan. Bizkaian, aldiz, %1,1 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako landunen kopurua %1,9 gehitu da 2022ko abenduaren aldean. Aurreko hilaren aldean, langileen indizea %0,6 jaitsi da.

2023ko BALANTZEA

2023. urte osoan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek %0,2ko hazkunde metatua izan dute. *Elikaduraren* sektorean, salmentek %0,5 egin dute gora, eta *Gainerako produktuek* %0,3 egin dute behera.

Lurralde historikoka metatutako aldakuntza positiboa izan da Gipuzkoan eta Bizkaian, %0,6 eta %0,4ko gehikuntzekin, hurrenez hurren. Araban, aldiz, salmentak 2023an 2022an baino %1,4 txikiagoak izan dira.

Sektoreko landunen indizeak, azkenik, %3,1eko hazkundera izan du, aurreko urtean izandakoen aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiaren eraginak zuzenduta dituzten serieetan oinarrituta kalkulatzeko dira, eta hiletik hilerako aldakuntzak, berriz, urtarokotasuna kontuan hartzen ez duten serietatik abiatuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie Merkataritza-indizea azalera handietan eta elikadura-kate handietan egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea **%100eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62